




GR® 12. 9. ETAPA. BELAGUA-BELAGUA



Angel Oloron aterpetxetik abiatuko gara, eta, erreka bat gainditu ondoren, Picarras de Sancho Garderen pean ibiliko gara. Bortuzkoren beheko aldean, bidea soilgune txiki batera ateratzen da, eskuinean, bidea estutzen den arte eta Gurutzeko Puntala leporantz igotzen den arte. Añiberkandia-ra igoko gara eta Insoleko leporantz egingo dugu. Ingurune karstiko bat igaro eta gero, garaiera galduko dugu Llamiako Ateetara iristeko. GR®a garaiera hartzen joango da Paquiza de Linzolak mazelatan. Larreriarako lepora iritsiko gara, larre zabaleko ingurune batean. Bidexka finetatik leunki igoko gara Lapazarraren hegoaldeko mazelaraino. Etengabeko jaitsierak Lazagorriko korridorean utziko gaitu, eta han ezkerretara bidatuko dugu, Belaguako ibarrerantz joateko. Pagadiak Zemetoko igarobidera eramango gaitu eta gero Eskilzarra zelaira. Pareta harritsu baten ertzetik joango gara, abiaburura, Angel Oloron aterpetxera, itzuliko gaituen bidexka bilatzeko.